

Harribitxien inguruko hordagoa

Baditugu *harribitxi* preziatuak euskararen komunitatean. Uste baino gehiago ere, baina, oro har, ezagutza eta erabilera mugatukoak.

Horien erakusle dira, adibidez, Txerra Rodriguezek tarteka-marteka aipatu dituen *Soziolinguistikaren Top Ten*-ak. Bere hitzetan, (Euskal) soziolinguista batek galdu ezin dituen 10 webguneen zerrenda, alegia. Edo lagun horrek berak Garaigoikoa blogean duela hilabete kaleratutako *10 produktu on* artikuluan aipatzen dituenak. *Harribitxi* estimagarri horietako beste adibide bat Booktegi webgunea da (Booktegi.eus), zeina *Guztion liburuak, guztientzat* azpitoluarekin agertzen den. Interesgarria, oso. Behar dugun bezainbeste ez diren arren, beste hainbat adibide eder egon badago, baina... Beti dago *baina* bat.

Gogoan dut unibertsitatean hasi berriak ziren ikasleei galdetu ohi niela *Euskalbar* aplikazioa ezagutzen ote zuten, beraien idazlanetan makulu ezin egokiagoa izan zitekeelakoan. Nire harridurarako, ezetza nagusitzen zen urtero; askogatik gainera.

Diagnostikoa argia zen orduan, eta gaur egun ere bera da: produktu eta zerbitzu erabilgarri askoren ezagutza mugatua da. Oso erabilgarri eta lagungarri gerta lekizkigukeen arren, balizko



Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA
@imartinezdeluna

Euskaraldia-n ahozko erabilera bultzatu dugu. Unea da bestelako aktibazio batzuei ere ekiteko. Besteak beste, euskarazko produktuen eta zerbitzuen hedapenari eta erabilerari

erabiltzaile gehienok ez ditugu dauden aukerak ezagutzen. Egunerokotasunean ditugun errokei nola erantzun euskaraz, horiek gaiztuz lagundu diezaguketuen ekipamendu edo tres-

na berritzaileak euskaraz egonda ere beste hizkuntzetan bakarrik ezagutzen baditugu?

Izan ere, euskarazko produktuen eskaintza sakabanatuta dago, erdarazko eskaintza erraldoiaren zirrikitueta ia-ia galdurik. Oraindik ez dago hala-koak ezagutarazten eta bilatzen lagunduko digun gune erreferentzialik, eta *harribitxi* horiek ezin ditugu ezkutuan luzaroago utzi. Hizkuntzen merkaturan euskaldunok itxuroso eta erakargarri agertzeko gure *harribitxiak* begi-bistan jarri behar ditugu, oso begi-bistan egon ezean ez baititugu profitatuko.

Euskaldunok gure arteko harremanak trinkotzeko premia dugun bezala, euskarazko produktuen inguruan biltzeko beharra ere badugu. Bide horretatik abiatzeko, euskarazko *helduleku* (produktu eta zerbitzu) guztiak sistematikoki jasoko dituen aurkibide edo direktorio baten premia dugu, non erraz izango genukeen eskaintza zein aukeren berri. *Euskaraldia*-n ahozko erabilera bultzatu dugu. Unea da bestelako aktibazio batzuei ere ekiteko. Besteak beste, euskarazko produktuen eta zerbitzuen hedapenari eta erabilerari. Hordagoa jotzeko ordua iritsi da: nork hartuko du bere gain halako zerbitzu bat sortzearen ardura? ■





ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

 

50 urtez elkarrekin